

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Urduñako Udala**

**Herriko jaietan eta jai tradizionaletan erabilera publikoko lurretan jartzen diren kaleko salmenta-postuen, barraken, salmenta-etxolen, txosnen, ikuskizunen edo atrakzioen tasa ezartzeko hasierako onarpena.**

Urduñako Udalaren Udaltzako, 2020ko otsailaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

G. Udal-jabari publikoaren erabilera pribatibo edo ustiapen bereziagatik tasa arautzen duen zerga-ordenantza

XII epigrafea: Herriko jaietan eta jai tradizionaletan erabilera publikoko lursailean jartzen diren kaleko salmenta-postuen, barraken, salmenta-etxolen, txosnen, ikuskizunen edo atrakzioen tasa

Ordenantza honen ezarpena testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera sartuko da indarrean, eta berariazko aldaketa edo indargabetzea onartu arte egongo da indarrean.

Behin-behinean onartzeko erabakia jendaurrean jarriko da erakusgai, interesdunentzat ikusgai eta entzungai geratu dadin. Horretarako epea hogeita hamar lanegunekoa izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko hurrengo egunetik hasita. Horrela, espedientea aztertu eta behar besteko erreklamazioak zein iradokizunak aurkeztu ahal izango dira.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasiera batean onartzeko erabaki hori behin betiko onartzen dela ulertuko da, eta Udaltzako ez du horretarako erabakirik hartu beharko.

Urduñan, 2020ko martxoaren 10ean. — Alkatea, Itziar Biguri Ugarte